


KURTZEMENDI



felix zubiaga

KURTZEMENDI

FELIX ZUBIAGA

IBAIZABAL ARGITARAZLEA

Aita Pasiotarrak
Zonotza (Euba)

Depósito Legal: BI-1271-81

Igarri, s. c. l. - Rafaela de Ybarra, 1 - Deusto-Bilbao-14

SARRERA

Ausarta izan bear dau gaur batek olerkiak egin eta argitaratzeko. Baiña batzuetan barruko zimikoa gelditzea eziña da, eta orduan bota egin bear barruko arantzak, gaitzaren salapen edo pozaren agerpen.

Olerkariak izadiko ditziretan ikusten dau egia; oiñarrizko gaietan lilluratzen da.

Olerkaria bere munduan dabil. Aurrerapen mundua baiño arutzago. Mundu zoragarria berea.

Baiña olerkaria eguneroko gauzez arduratzen da, egunerokoetan agertzen ez bada ere. Erriak min eta poz emoten dautso. Olerkariaren eritxiak politikatik at dagoz, baiña "Don Bildur", esate baterako, Euskalerrian jaio dala susmau dau.

Aita Felix Zubiagak olerki ezardiñetan bere lenengo egada egin dausku. Emen geure inguruetako txori abeslarien antzera. Batian sasirik-sasi, zozo baltza legez, bestean, txindorra baizen sotil sagar adarrean, edo eta biragarro tantairik zutuniera igonik.

Edozelan ere, irakurleak dauko itza eta bideok aztertzeke aukera.

Aita Fermin Iraolagoitia
Euba, 1981

aldapa
arrate,
egazti
gizaki,
oiñestu
irrintli,

ire magaletik tontorreraño, Kurtzemendi,
zenbat tarrapata, abere, artalde, gizaldi,
zenbat trikuarri, zaparrada, ermita, iturri,

arkaitz,
malkar,
zugaitz,
arnas,
bide,
tximist,
larre,
sasi,
txistu,
euri,
aize,
laiño,
zidor,
pisti,
lorratz,
edur,
neke,
gudu,
zantzo,
joku,
odol,
izu,
ots,
itz,
poz,
lur,
zur,
lan,
ur

ZIDOR

Au da abagunea,
au dogu zoria
abiadan jarteko
gure historia!
Indarrak galde baten,
burdin biurria
arteztuko genduke
arteztuka genduke
gure auleria.
Zuri ta gorria,
—au une larria—
bat da aberria,
bakar ooria:
erri au jasotzeko,
ba da oiñarria.

EURI

Aseran aderlan,
garden etozen ibaiak,
gabi jarioen iturriak,
Jaunaren Espiritua
egaz ur gainean,
dirdaiz giza-arpegiak
ur beretan.

Aseran
ziri-miri ur-tantak
jausten odeietatik
edo ta zaparradaz
blei-blei lurra narotzen,
ibaiak ibarretatik
brauka joazen.

Aseran argiak,
dizdiz uretan,
ezpillua idoroz,
bizia sortu euan
aren kolkoan.

Aseran ederlan, ederti,
itxas-mundu zabala arrandegi,
ez eiteken berreun millaz neurtu,
dena zan denena, denen aberri,
millaka gizonen bazkaltoki.

Orain bestelan...
Oria, Urola, Deba, Ibaizabal;
zuen uren ustelak!
Nork zikindu dauz zuen uarkak?
Bizkaiko itxaso ta zure kalak
nork eragotsi bere kanaz?
Andi-gurak, euki-naiak!
Edo biziaren gozoa uxatuz,
nork agortu dauz zuen altzoak?
Kutsadurak, kutsadurak!



Txistu lerdea jaurti dauskue
Goikoaren ezpillura.

Agaitik, bestelan
—orain uarretan—
dabilku biotza,
nork asmatu eziñik
bataio-ur leena.
Ur goiena,
ur barrena,
—aserako ur gardena—
garbi egizu gugan
barruko legena.

UR (I)

Ura den ona, ura den garbi,
ura ezpillu bizigarri!

Ortzian jaio,
ontzian bildu,
goiko jatorriz
argitu yaku.

Ura den ona, ura den garbi,
ura ezpillu maitagarri!

Semetzakoa
artu badozu,
ura da tanta,
ura da pozu.

Ura den ona, ura den garbi,
ura ezpillu zoragarri!

Aitak irriñoz
barre egin dautzu,
ura da oxin
t'itxaso ondatsu.

Ura den ona, ura den garbi,
ura ezpillu dizdizari!

Seme-erentziz
—urak iturri—
itosurea
dozu itzuri.

Ura den ona, ura den garbi,
ura ezpillu zinezgarri!
Eguzkik zaitu
dizdiz zulatu,
ur-tanto zena
bitxi billatu.

Ura den ona, ura den garbi,
ura ezpillu, grazi-iturri!

Bateo-ixuriz
errege zara:
urak zurrutzaz
daukan indarra.

Ura den ona, ura den garbi,
ura ezpillu bizigarri!

A I Z E

Aseran aizeak Jainko-abotsaren
burrundadea ekarren,
aren arnasaz giza-bularrak
oparo ziran betetzen,
Goikoaren atsak —eguratsak—
ginduzala inguratzen.

Aaltsuaren jantzi-barrenetik
odeiak egozen dindilik,
izadiko Artzaiñaren artalde,
aize-aidean firi-firi
eta lur-gaiña bare-bare,
Jainkoaren aintzatan egoan
zeru-sapai metal urtuzkoan.

Trumoiaren asarrea entzun zan
brunba, zeru-baranoan,
ezbaigabe ardiak otso
biur ziran beingoan
norbaiten zigorrerako.
Aizeak, ekaitz, txistu-txistu,
zizta-mizta oiñestuak,
zerua zena, zeru gozo,
Ortziren odolestuak
darabil dena izu-izu,
astintzen zeru-lurrak

Zigor-indar, ekaitz-olde,
Egillearen agerkunde:
Zer dakar ostarkuak?
Egurats! Egurats!
Barne-mezu gizonentzat.

Aseran, bai aseran,
garbiagoa zan...

Eguratsa kedar biurtuz gero,
lauso dakuse begiak oro:

keak datoz Erandiotik,
Sestao, Bilbo ketan dagoz,
ketan arnasez Barakaldo.

Pafa-pafa,
zuri edo baltzak,
lausotan dauka
kearen gazak:
zugaitzak etat barazkiak
eta giza-begirada.

Aide-deabruak jaregin dabiz,
langilleria bularreriz,
Inpernu-atea idegi dausku
giza-jeniuak,
eta indarrak eta diruak
agintzen dauskuenez gero,
kaltegille deabruak
aizetan dabiz gogaro:
entzungarriak irrati-ondaz,
—geure izkuntza oztopatzen
kanpoko otsak—
ikusgarrien ikuskiñaz,
—erbestekora lerra gaitzean—,
arnasgarrien kutsaduraz,
oi, gure bularrak!

Sortzaillearen arnas bizkorra
nork lorrintzen dausku?
Aotiko itz jatorra
nork oztopatzen makur?

Osasun, birikien poz,
Espiritua, zatoz!
Bete eizu mundua
aserako gogoz.

TRIKUARRI

Amorru gabe erori intzan
azi onaren antzera
t'ire larrosak lau aizetara
zabaldu dozak baratzen.

Lau aizetara zabalduko
ire larrosa ixuriak,
eure olerki fiñenak dozak,
agortezin iturriak.

Eure iturritik edan yoagu,
eure amesez erne gozak
t'euskal baratza orain usaintsu
yaukek eure margoak.

Besoak zuri gelditu intzan,
azpitik lurra gorritan,
agaitik bake t'alegiñaren
antza jaukak ikurriñak.

Ta lau aizetara ire larrosak
itxaropena yaroak.

ARNAS

Izkuntza da erri baten
bizi-arnasea,
euskaldunona beraz,
gure euskerea.
Euzkadi iltea da
euskera galtzea.
Bizitzeko zer egin,
euskaldun jentea?

Euskerarentzat erdal giroa bai latza,
Kutsadura baizen da arnasteko gauza.
Kedar-laiñoetatik garbi eguratso,
euskeraz gorde daigun erriko arnasa.

Arima galdu eta
or dabilta ezbai,
euskaldun izeneko
ainbat gure anai.
Euren odol, soinkera
t'abizen jatorrai
euskaldunen gogoa
falta yake orain

Legetik ostaz dogu bizi-esperantza,
arpegian ezbaitor gure amaren antza.
Auzokoek ukatu dauskuenez laguntza,
narru ta ezpain bearko geuk zaindu izkuntza.

Euskera, gure euskera,
Euskalerrikoa,
gizaldietan zara
beti gure arloa.
Euskera, gure euskera,
geure odol beroa
ta geure soinkeraren
arnasa, gogoa.

EGAZTI

Aseran txori ona,
zoriona...
Jakituriak txintaz bete euan
txorien mundua
paradisua.
Mandatarien egadaz ebizen
goralpen-doiñuak erakusten,
abots, soñu, aide zoli,
Txorrotxio-txi, txorrotxio-ttxi,
zoriona abesten,
aintza iragarten Jaungoikoari:
kantuz eguna asten,
kantuz amaitzen.
Geroztik, aldegiñik zoriak,
joten dau beste txoriak:
negarrez dago txori gaisoa,
amaitu yaku paradisua,
ondamen billa inguru dogu
kukurio zorigaiztoa.
Urrun basoen murmura,
urbil pekatuaren zorra,
zementozko mundua.
Biotzak arri biurtu yakuz,
aazturik leengo dunduna,
makina-abarrotsa belarrian,
jausi gara inpernu larrian.
Nork itzuliko dausku
paradisuko lorea
t'ekarriko uxatu
gendun txori kantaria?
Ezin asmatu gabiz,
fio-fi, txiristi-txinta,
txorien leengo musika,
ots jatorraren mezua igarri
nairik itxumustuan.
Apurtu gure estarriak, Jauna,
aserako kantuan.

LAIÑO

Lera-arren,
onek gaisook mundu ontatik
beste mundura joango dira
bizi-goza ezagutu barik.

Prisa-arren,
onek gaisook ez dakiez uneak
neurtzen, orduaren minutoak:
arin ibil nai bizi-osterea.

Droga-arren,
onek gaisook, sua keaz estaliz,
zerua inpernuaz daue naasi,
guzur-egia ezin bereziz.

Naska-arren,
onek gaisook ez dira ia gazte,
ez ume, ez eldu, ez ta zaar ere:
ez ditu ezerk azten.

Dirua-arren,
onek gaisook, arima salduz,
errez erre dauez eukiak
ate orotatik urten-sartuz.

Pusmiña-arren,
gaisook okerretik joango dira,
ez dagoz gure kontseju-begira,
leenago doaz amildegira.

Zoria-arren,
—adiñak osa oi gazteen gaisoa—
baiña lerak, drogak, naskak, diruak...
galerazten urteen eskola.

Jainko-arren,
gaisookin ba dago zeregiñik,
ordu obeeri begira gabiz,
ekintzari bake emon barik.

GIZALDI

Aingeruak baiño
ez askoz gitxiago...

Aseran Jainko Jaunak gizona
bere antzeko sortu euan,
egotetxea egoki eutson
lurreko paradisuan.
Jainko-jatorriz koroatua,
jakintza-argia buruan,
izaki oron aurrena bera
Jainko-kutuna munduan.

Jaungoiko Jaunak sorkari orotan
bat aukeratzen lankide,
baratza eder t'azter egizan,
zeru-lurretik gain-bide,
danen zioak, goi ta bekoak
—teorien eskubide—
t'alkar izketaz oles dagitso
bere Itzaren partaide.

Ar eta eme moldatu ziran
gurasoen zorionaz,
zorion orrek bere mugeak
aurrez eukazan Jainkoaz.
Gizona, jauna, jauntxu izateko
pusmiñaz ta zimikoaz,
muga apurtu, aurrera doa,
esanik "neu be nonor naz".

Zeruko odeiak apurtu ziran
gizonak itza jatean,
Jainko-angerua suzko ezpataz
agertu zan baratzean.
"Aske zaranez, zoaz guretik
gogoen mundu zeurean,
on ta gaitzaren jakituriak
argi daizula bidean".

Adan ta Eba, Kain ta Abel,
damutuen aurrelari,
Abraan t'Israel, Moises ta David,
askatatsun ameslari,
zuen Jainkoak ez gaitu aaztu
ta diñotso Semeari:
Erosi eizuz kateetatik,
zeure odola bake-sari.

Jainko-burrukan gizona beti,
ezbaikor edo zin darrai,
aldizka zintzo arremonetan,
aldizka ordez, alderrai.
Norbere jitez nork emon antza
bide zuzen ta biurrai?
Noranai doala, alde, egalez,
Jainkoa doako jarrai.

Bere bidetik beingoz urtenik,
"ez dot Jainkoa guraso,
Jainkorik ez da —autor dagike—
tximua nere aitaso".
Paradisua galduez gero,
tximu-zoria dau jaso,
argibideak itzaliz denak,
ortik dabil mortu-baso.

Jainko-itxura bere arpegitik
ezaba eta kentzeko,
ideen drogak diñotson bera,
bere zerua sortzeko,
jo Egipto ta jo Babilona,
jopu-zorien menpeko,
zital guztiak jastatuz doa
lobedarrez aazteko.



Aitaren biotz, Aitaren etxe,
seme galdua non ete?
Euki guztien jabea zena
urde-zain, ako arlote.
Salbabideko azken asmoa
errukiaz osa beite,
zeuk asi zendun ederti-lana
zeure eskuz dadin bete.

LAINO (II)

Eder-zale baiño areago,
egi-zale ei zan bera...
Baiña Biblia irakurtean,
formak, esaldiak, itzak
—bitxia bertan itzita gero—
bitxi-begiak (ez egiak)
biurtzen dauz
bere arrien xuloko.
Arriak —arribitxiak— ez bai dira
zerrien musturrerako.

MALKAR

Zeure altsoetik, Jauna,
sortu ninduzun mundura
ta zeuri lotu nauke
ikusezin loturak.

Ez ninduzun erditu
amak legez soinka,
artaziz erdibituz
zilbol-esteak.

Eta neu, amagandik legez,
zeugandik urrundu-ala,
jaregiten ninduzun,
lokarriak larga.
txaka-txaka aurtxo
aukerabidetara.

“Aske naz” niñon kolkorako,
ez “nondik naz” ez “norako”,
aurra baizen jaregin zale,
amarengandik apurka
ani-ani bere kaltez.

“Libre naz” eragoten barruak,
ez “nor naz”, ez “norentzat”.
Eta zu, gain orretattik orduan,
lokarri-biltzen asi zintzazan.

Esturaldian bereala
amari deika aurra.
Estuntzak neure samatik
ta lokarri puntan zu.
Jaun, salba nagizu
erio-bidetik.

Ama aaztu daiteke umeaz,
ez entzun daike aren deia,
ebakiak izan ziran-ta
zilbor-esteak.

Zu lokarritik ostera
tenka eta tenka,
ni pauso galdutik
atze-atzeka,
lokarri biltzen zu,
—ba zakust orain, bazakust—
ikusezin aritik.

Zeure altzotik, Jauna,
sortu ninduzun mundura,
argi-izpiak yatazan
zure loturak.

Argiaren aurka ez nago;
zure lokarrietan ni askeago.

ODOL

Bere gurutzeko odol ixuriaz
zeru-lurrak baketu euazan;
agaitik ixuri bako oparia
eskeintzen da aldaretan.

Apaiz-jendek gerostik,
—bake-gizona izaki—
opari garbia eskeintzeko,
ez dau aiztoaren premiñik.

Eta Jainkoa il bazan,
—au gizabidea benetan—,
Baal-jaupariak zertan dabiz or
labanak odoletan?

Aizunaren jaupariak
giza-odola irrikaz,
jastamen galdu ao-estarriz
sastaka gogor dabilnaz.

Bada zantarra,
—munduan bada—
aizunagazko tratua;
gizakiaren
odola-arren,
emongo ei erreñua.

Omorruak, amorr,
odolak, odol:
erriaren bakerik
orrela ez dator.

Kultur bakoitzak bere aldareak
jaso oi dautsoz Jainkoari,
t'erriak aukeratu abadeak
egiten dautso opari.

Non aldarea,
an aukerea
erriaren eskuko.
Iñork armarik
ez bei kalizik
norberetik jaso.

ARKAITZ (I)

Arriak ez dauka begirik,
ez jaurti euskal arria.
Arriak biotza dauka;
ez eragin negarrik
euskal arriari.

ALDAPA

Santi Kurtzeko aldapan gora
erromes doa Euzkadi,
age aztuna lepoan daula,
aoan otoitza eskari:
“Parkatu, Jauna,
auxe da lana;
begitu zure erriari”.

Euskalerrria bai da menditsu!
Aren troka ta malkarrak!
Zuzenbidea egin-nekeza,
arkaitzak biotz gogorrak.
Mendi bakoitzak
bere gurutzak
ta begietan negarrak.

Erio-epai ezbaigabea
gaur, biar, etsi edonori;
odol-ixurte andia bearko
Euzkadi daiten lur gorri.
Gaur arengaitik,
biar neugaitik,
norentzat ete tiro ori?

Epai latzena emon zan legez,
gurutze aztuna zor yako,
diru milloek ostaz leukeen
odol saldua trukako.
Gurutzemendi,
euskaldun sendi,
benetan zorigaitzeko.

Ogetamarrak milloetan dira
urregorritzko gurutza;
egurra doan, untzea urru,
—urrun lanaren ardatza—
dirukeriak,
indarkeriak
daukee pobreen bizitza.

Gurutza dago tente, dindilik
Kristo irudi gizona,
aukeratuko ordu berean
emongo dautse azkena.
Egunkariek,
erostariak
erakus, oi, zuen pena.

Atxurraz lurrik mardulenean
agin dautsoe obia,
metraillaz ondo josi lurrari,
ebatsi dautse bizia.
Metrailla, biur
aiteke atxur
ta landu au lur jausia.

Maitasun ordez gorroto erein!
Lur gorrian zer erneko?
Maite baleue, azi oberik
bake-uztaren trukeko.
Bidegabeak
frutu bereak
dakarkuz zigorrerako.

Egarri gara ta azken arnasa
emoterako orduan,
ez negar otoi, ziñez parkatu,
zagoz, anaia, bakean,
ez bai dakie,
oker dagien,
gaurko Kristo erailtean.



SASI

Sasiak oratu egin deuk,
ire baratza elkor
ikusten yoat.
Indarkeria, gorrotoa,
beti gogor, beti gogor,
gogor-zale...
Gogortu egin az, gazte.
Biotz-biguntasuna galdu dok
ta gogoaren zaulia.
Ez az gazte jadanik,
arri koskor baizik.

BIDE

Eskubidea,
bidea,
auxe bai dala
idea:
gogoz noranai
ibilteko lain
askok nai leuken
kidea.

Betebearra,
bearra,
nekez orantzen
den larra:
batabesteen
gain laga oi den
estrepozuko
lakarta

Latzetan ez gal
bularrik,
ez samurretan
bakarrik:
erantzun bardin,
ezarri barik
bien arteko
marrarik.

Eta beterik
legea,
eta aitortuz
fedea,
askatasunak,
gizatasunak
egingo dausku
bidea.

ITURRI

Menditiko alaba, mesede bikaiña,
erakarri zinduen erriko plazara.
Amagandik arako apaltasun zara,
agur iturri zintzo, ur garden apaiña.

Zeure bidetik aratz zinoazen baketsu
eta on egitearren, itzul guganatu.
Zeu edan, zeuz asetu ta zeuz ikuzkatu
gure orbanak ta zoaz len baizen maitetsu.

Gure griñak ez zaitu aldatzen irritzaz,
ez zure abiada geldiarazten bitsaz;
on egin ta ba zoaz on egiten gertu.

Iturri menditarra, itzuliz bidea,
gure odol estuak gozatzeru erdu,
zugandik ikas daigun gaur gizabidea.

IRE MAGALETIK

Zeruak, ortziak, lurbirak,
mundu biribil-biribillak,
Jainko-irudira egifnak...

Jainko egille,
egi biribille!

Izakiak, gizasoifia,
Jainko-izpiak,
Bere asmoz
mikrokosmos
egokiak,
erdi argi, erdi illun,
—egi, guzur—
ez borobil, baiña biur,
bereziak.

Buruko kiribilla,
zerez bete ire utsunea?
Zer gorde nai dok eure estunaz?

Bular, beso, zango, aragiz,
sagar, madariz,
laranxa erdiz,
edo zeruz, Jainkoz beteko aiz,
zorion-antzaz
edo zorion utsaz,
azalez edo mamiz.

Bai zorionaren bide bildukor!
Oi borobillaren isla biurkor!

Erdiketaren sastada,
osoketaren burruka,
autonomi-puzka,
independentzi etsia,
zoriak eragotsia,
norkeriz uts egitearren,



Jainko-ardatzetik eten
eta noranai,
ikuikorren zain,
itzultearren.

Ez dau ezkontzak estunaz,
ez tukuz maitasunak,
zeuk legebesarkatzen
gurarion kaizua.

Deslai-deslai, bai lotu!
Aske-aske, bai jopu!
Usteak garabiz engaiñatzen,
kosmo-birako jainkotxu,
jende-jenio,
Jainko-semeen askatasuna
eldu dediño.

OTS

Asko dira
Kristo gabe,
erriaren "kristo"
deitzen direnak.
Baiña bizia emon
t'irugarren egunean
berbiztu direnik,
ez dazagu,
ez daki
gure sinismenak.

TXIMIST

Itandu egizue
zer den poesia
eta denak erantzungo
aren grazia.
Ez da olerkarien
neurri sorosia,
itza biribiltzeko
arte berezia.
Ez bai da esia,
ez itz irazia
ta bai arantzia
ariman josia,
itzak berak daroan
jaurtin gezia.

ITZ

Larrosak ez dauka fruturik,
bai zure ezpainenak mosurik;
mosuak baiño gurago nik
oi, zure itza!

Burrundadan dabiz erleak,
urrungaz ezpain-loreak,
bekarst jadanik zoriak
oi zure itza!

Ikusmenak lillurauta,
aztamenak mende nauka,
soillik nagikela salba
oi, zure itzak!

Ixilizaitze, zentzunak,
loreen mozkor aztunak,
idegi beitez ezpanak
oi, zure tzaz!

Ezpain-larrosok nigandu,
zeren begira naukazu?
Musika, doiñu eidazu
oi, zure itzaz!

Eta zure ezpain laztanak
itzaz loretu zirean,
eta itza frutu egin zan.
Oi, zure itza!

POZ

Amabitxik Loretxori
zer ekarri dautsa?
Iru koskadun mokotsa,
iru koska ta erdian
tinko, arrautsa.

Amabitxik Loretxori
zer ekarri dautsa?
Pazkopil irukoitza
egalez eta erdian,
Jainko-biotza.

Amabitxik Loretxori
zer ekarri dautsa?
besoetakoei oi,
Pazko-bezuza.

Nork ekarri dautsala?
Amabitxi mazalak.
Oipillak zer daukala?
Irukoitza egala
ta arrautsa bipilla,
alabatxi, alaba.
Ala bi?
Iru-la...?
Loretxori ekarri
Pazko-opilla.



LARRE

Ardau-ogiaren jaira
kanpaeak deika ari dira,
umeak pozez jauzika
doaz eleiz-atadira.

Jantzi zurien egadaz,
uso garbien urrumaz,
jan-edanez ase dira
zeru gotiko mamiñaz.

Ze ogi, ze ardao barri
goitik dauskue ekarri?
Ze aizek biurtu ete dauz
gure umeak maitagarri?

Itzi neugana umiei,
etorten ez eragotsi,
euren antza daukenezat
zeruak dagoz idegi.

Amek jantzien zuria
zaintzeko dauken leiaz,
ez daue ondo oartzten
umeen zeru-loria.

Gizonak taberna-atean
baso-erdia eskuetan,
dal-dal dagoz plazara-adi,
orren duiñak ez bailiran.

Elduko dira egunak,
jakingo kristau elduak,
ogi-ardaozko jaira
deitzen gaitula Jaun onak.

Ta batzarraren erdian
maai betea ipintean,
danek jakingo daue:
"Jauna bera gure artean!".

NEKE

Sirenak daroan larria!
Zer izan da? Nor izan ete eria?
Jendea miñez leioratzen,
begiak belarriei samiña geitzen,
ta biozkadak ots:
"au suertea!
Gaurko gazteak!
Amaikatxo ikusteko gagoz!"

Sirenak daroan abiada,
bide luzean aiene da:
"Gazte bat daroagu emen;
bidean aurkitu dogu
odolustuten".
Mustur-apurtu dira berebillak,
bake garratzak egin ta orain,
motarrak isil,
biotzak pil-pil,
odol jarioz bekokiak,
bizi ala il.

Sirenak daroen ardurea!
Konorte barik dagoz gazteak.
Ez galde nezkeaz, ez mutillaz..

Leiaren leiaz,
oi, leiaarren,
festaburuko abidan joazen.
Makina, abiada, gasolina,
jendearen ikusmiña,
motorra isil,
biotzak dun-dun,
iñortxo ez da errudun.

Sirenak daroan min bizia!
Bizi ta Erioren tira-bira.
Ez odol-usaiñean jardun,
ez kotxe-ondakinei begira;
biziaren alde parte artun,
ez aztatu txatarra
t'esan: "suerte txarra"!

Sirenak daroan etsipena!
Zelan jausi den frutu berdea
bizitzaren zugaitzetik!
Eldu baiño leen zan lurrean.

Bidean entzun dogu barri tristea...
Bai pena ain gazterik iltea!

ZAPARRADA

Zaragi zaarra
ardao beterik egon,
baiña berari kubalibrea
gustaten yakon.
Ardao zarrak astu,
kubalibrea sartu
ta trabenari asi zan.

Urrengo goizean,
ai, bere trabenea
urtegi zan.

PISTI

Badakizu zer den mafia?
Kontu arekin, ez fia.
Itz kanpotiar ta azia,
ondatzeko erri guztia.

Euzkadi den lur mardula,
—giroa ezpalitz ain aula—
landatuz "insignis" piñua,
illuntzen dozu erdia,
ta lore ereñez "opioa",
drogatzen gaztedia.

Jator daiguzan oianak,
betor leengo orlegia:
larrak larrosa dakarke,
gauza onik ez mafiak.

Lapurreta non? Mafia an.
Indarkeria non? Mafia an.
Zemaiak non? Mafia an.
Bildurra non? Mafia an..
Eraiketak non? Mafia an.
An da mafia
non saldukeria,
eta abar...

"—Keria" orokin ondo
puntuatzen mafiak,
"—tasunik" ez arean
aren aginteak.
Azi galdua, landare txarra,
askoz ohea da larra.

Mafia, zer den mafia?
Kontu arekin, ez fia!
Naikotuz dagoz bi Ziziliak,
naiko naikotuz mafiaz;
mafi-dantzaz mefidantzaz
lau Amerikak.

Euzkadi den lur mardula!
—bedar gaiztoen aukera—
Izkillu-armak golde biurtuz,
landu dagigun au lurra,
eta azi onak aukeratuaz,
ezi geroko alorra.

ARKAITZ (II)

I,
uste moteldun mutil,
arriak ba yaukak egotarririk,
Eu az, i,
egozgogor, epertarin,
barregarria.
Ta arria aipatzen dok,
euskal arria?

I,
forma zaarren lapur,
barritsulari,
ez enkian kubalibrea
zaragi zaarretan ez zela
sartugarri?

L A N

Ba yagok amaikatxo lan
aitaren arloan.
I, eu, mutil prestu,
ator lanean.


Aitaren ardiak zaintzeko
naiko dok makilla,
otso-bidetik bildotxak
galduko ez badira.

Arma orreik ortxe bertan
itzi eizak
t'eurei lotu daroazan
andi-putsak.

Arma-diztiren seiñua
aspaldian,
zaldun bikaiñen ordua
joan zean.
Lan bikaiñago batera
deitzen dauat.

Lar dozak askatzaille,
gitxi aske direnak,
t'erdiak yarabizak
uste ustelak.

Serbitza apal,
morrontza isil:
orra mutillen arloa,
esku utsean
lanari eutsi,
askoz bikaiñagoa.



GUDU

Konpañia fundatu eta armatu,
itzaz ta ekintzaz
mundua zearkatu
euan Kapitan andiak.

Orain armadunek
armetan diardue;
mutil famatu egin dira,
iraultzearren munduaren bira.
Merkeago izango euen alan be
Jaunaren itzaz armatu balira.

Konpañia armatu eta
txispaz armaturik,
argi-zirtaka Jainko-itza
bidea dagie.

Armadunok ordea,
altzairuan dauke fedea,
urre-diztiran:
teknika-burruka dareo,
darelakoz erriko eroe,
edo direkoan.

Konpañia armatu eta
ikurriñaz zabalik,
"Ad Maioren Dei Gloriam"
Jaunaren aintza ikurdi.

Oneik bestelan,
euren koloreak defenditzen dauez
euren orrua ta amorrua,
euren oorea,
—erriak ba dauka berea—
darabille garrian lotua.

Konpañia armatu eta
ez dauka bildurrik
iñongo aldetik.
Armak itzi artean,
erregearen faboreak
galtzeko kezka beti.

Aren galpenak leporaturik,
orain armadunek
militarren bildurra
sartu gura daukue,
leen murriz eta orain mutu
jarrai dagigun.

Konpañia armatu eta
guda-guda nairik,
sutsu ekion mixiolaritzari.

Armadun militarrek ostera,
izenaren arabera,
euren gudara doaz,
ez erri-aginduaz.

EGUZKI

Jainko-itza,
ao biko ezpataz,
plomozko soldadu
barregarria egiten asi zan.
Plomo —pekatu aztunak—
Jainko-itzaren zorrotza
eskumako aoa aztatzen inarduala,
sast egin eutsan
ezkerreko aoak.

ZENBAT TARRAPATA

Zer dagi ta zer dagi
Troiako zaldiak Euzkadin?
Askatasun-monumentu,
plastikozko zaldi-mamu,
arerio— esku leunaren
arteak egin zaitu.

Jostaillu bitxi,
ea zer zaren,
troiako zaldi,
plastiko-arma,
indar lergarri.

Zer dagi ta zer dagi
Troiako zaldiak Euzkadin?
Autezkundez ezin zena,
zaldi-mamu batekin
tratulari.

“Gora Euzkadi!”
“Mutil, etor adi!”

Zer dagi ta zer dagi
Troiako zaldiak Euzkadin?
Plastiko narrua dauka
ikurriñez beterik,
ikurriñaren gurutzak barriz,
gezi-ziriak irudi,
pegatinak direlako
estalki ongarri.

“Independentzia!”
(dependentzia,
pendentzia...)

Itz beraren erro-ezbaiaik:
“I” eugandik asi,
“a” gaz itziak.

Zer dagi ta zer dagi
Troiaiko zaldiak Euzkadin?
Non zan Troia? "Hic Troya fuit".

Emen da Troia:
sartu gura dauskue
beste betroia,
gura dauskue sartu
txaka faktura,
zaldia ordaintzeko
geure kontura.

Zer dagi ta zer dagi
Troiaiko zaldiak Euzkadin?

Leen, orain eta beti
iñosenteak ez daki,
jostailua erio-arma
maiz izan daitekenik.

"Troya fuit" eta "Troya fuit",
alperriko leziñoa;
barriz ordain bearko
tonto-narrutik.

TONTORRERAIÑO

Historia-une ontan ezin dogu etsi
eta merkatarien eskuetan itzi;
erri-arazoagaz dogu zerikusi.
Ez uzkur, ez illeta, ez neke, e igesi;
ainbeste aukeretan geureari eutsi.

Bakoitza bere etxean
bapo gengokezan,
erriaren kondaira
ez balitz kalean,
etorkizuna
utsaldi larrian,
seme-alabentzako
geroa zorian.

Ara, aurrez-aur, bi alderdi, aukera bi,
egin nairik geure erria gudatoki.
Bakoitzak ezagueraz eukera bei:
Zer da ohea:

gudea ala bakea?
Zein da onean:
gorrotoa ala maitasuna?
Zein gizabidea:
anaitasuna ala odol-ordea?
Zein da zuzena:
zemaia ala begirunea?
Zein da giroa:
bildurra ala ustekida?

Dagiogun arpegi aurrez egiari:
aintzat artua daiten gizona gizonki,
erriak aurrera jo alienatu barik,
bere ao ta oiñen aukerabidetik.

Non da gizabidea?
Utsaldian.
A barik zer daikegu?
Utsa dena.
Ta gizartea jasotzeko
oiñarria?

Gizonagan ustea,
ustekida.

Ez da atsegin jauntxokeria erri askearen ordeko,
makillakiskiz zuzenbidea erritarren bizkarreko.
Aske-itxurak purpura jantziz zigorrak izkutatzeko
ta erriaren borondatea amaika giltzaz gordeko.

Erri-gogoa zapaltzen bada,
agur erri-nortasuna,
merketariak azpi trukean
salduko daue aren guna.
"Erri, gizarte, librea zara"
ots egin ta gizona
etoi zapaltzen den bitartean,
ez da gizarte zuzena.

Pertsona gabe ez da erririk,
—danen aburuz da sortzen—,
nortasuna ere nor bakoitzetik,
ez batzuren borondatez

Au da historiaren zoria
erro-errotik sorrarazteko
erriaren kontzientzia.
Kontuz ez autsi,
zapustaraziz
erri-itxaropena,
ba zapustuak,
galduz burua,
saltzen dau gogamena.

Erria benetan maite dozenok,
uts zatiketak.
Guretzat edozer den kaltegarri
kontu bestentzat
denentz pozgarri.
Historia ez da eurrerantzen
beti burrukaz;
aldez daiguzan oiñarrizko
denon jomugak.



Ez dagiala inortxok uste,
ezingo dela justizi,
lortu eziña delako, ez bada
bere mereziz.

Arria, arria, arria:
euskal oiñarria,
erri-kultura,
politika,
lana,
ekonomia,
bizi-bidea.

Arria, arria, arria:
gizona
erria,
askatasuna,
erakunde askeak,
bakea.

Arria, arria, arria!
Arri noblea.

Zer bear da geiago
erria jasotzeko?
Geure aburuen ueña?
Geure alderdiaren agintea?
Zintzotasun apur bat
ta borondatea.

Arria, arria, arria!
Ez arrika jardun teillatura
geure oiñarria.

IRRINTZI

Euskera ta euskera,
gure plazan jaia da;
jadi adi, etor adi
geugaz plazara.

Txistu-soiñua plazan,
neska-mutillak dantzan,
t'ederrena neskarik
antxe falta zan.

Arkupean da isil,
lotsagorri ta musin,
izan bearrez danon
dantza-erregin.

Jo danbolin-soiñua,
ari maite-keiñua
eiok, mutil, t'emoiok
eure eskua.

Nork esan dau zaarra
dantzarako ikara,
atso aul, neska motza
dala euskara?

Aurrera ta kotrapas,
dantzarako ba dau jas;
txalo danok euskerari,
danok euskaraz.

Atzerriko modeak
zeu olan baztertzea
ezingo daue jasan
mutil gazteak.

Euskara ta euskara
gure plazan jaia da;
euskara ta euskara,
ederrena zeu zara.

ZANTZO

Euskera galtzen denean,
zerbait geurea galtzen da
Errokarin,
Ultzaman,
eta bardin-bardin
Sopelanan.

Eta beste ibarretako
euskera galtzen denean,
anai nafarrok,
zerbait geurea galtzen da,
ez bakarrik zeuena.

Zaindu eizue betseña legez
gure euskera.

Non da euskal kidesuna?

Eta bizkaitarrok Bizkaian
bardin aaleginduko gara
salba daiten izan
zuen euskara.

ZUR

Bizkaian ez dago arto-solorik,
baiña arto-solorik balego,
azkonarrak dabilkez pozik
edonun solorik solo.

Bizkai-alorrean euskera dago
t'albora begira alfabetatuek,
azpi-zuloak joz sakonago,
ortzak erakutsi dautsoez.


Arto, alfabetaz, argi eiteken,
baiña arein labean berotuz, Bero
—burua eldu orduko lerdn—
opil erre yoku lerdo.

Zertarako dauz burua, bizarrak?
Eguzkitan azia ontzeko?
“Bai zera, —erantzun azkonarrak—
talo bero neuk jateko”.

Landabarritze-orduak jo baileu,
erne den lurretatik aldenduz,
—gure euskera geurea, zeu,geu—
galdu gurarik dabilkuz.

Eta translandatuz solorik solo,
azkonar-ortzetarako Arto,
ta transalfabetatuz zoro-moro,
bizkaieraz egin lasto.

Aldagarria ete da artoa
atxurraz, dekretoz erri-izkuntza?
Ori “transplantearen” oztapoa,
ezin onartuaren gaitza.



IZU

Don Bildur
izukor dabilku.

Korainaz orren serio,
zaldi gainean Erio
ikusi bailu,
Don Bildur
izurkor dabilku.

Ez jan, ez lo gaitegunez,
mozorrozkoen bildurrez
eta dardar izu,
Don Bildur
izukor dabilku.

Arandatik Mirandara,
Donostitik Errioxara,
alderrai, asaldu,
Don Bildur
izukor dabilku.

Edo langillei zorra
edo alperrei mozkorra
ez dautse ordaindu.
Don Bildur
izukor dabilku.

Lapur, etxekalte bailitz,
urde, ijito. Jadanik
ez ei da euskaldun.
Don Bildur
izukor dabilku.

Auxe ei da bizi-berri,
t'ezin bizi Euskalerra
zemaiz eta izuz.
Don Bildur
izukor dabilku.

LORRATZ

Balego ta balitzaz
alkarren atzean dabiltzaz.
Baintza ta banengo,
azkenaren urrengo.
Banengi ta bazengi,
eziñaren goiz-senti.
Baleuka ta bagendu,
itxaropen-abendu.
Baenkar ta balekar,
esku-joten alkar.
Banenki ta baenkus,
biak ein daue uts.
Baleue ta baleike,
baldintzaren neke.
Banentor ta banenbil,
alkar ezaguteke il.

JOKU

Atxia-motxia,
bizia edo boltsia,
orain berton.

Atxia-motxie,
amar bat billia
dirutan or.

Atxia-motxia,
bizia galtzia
nai ez badok

Atxia-motxia,
naiz saldu etxia
zor eta lor.

Atxia-motxia,
iltzear bizia
aukera dot.

Atxia-motxia,
Jaungoiko maitia,
errukior.

Atxia-motxia,
damu naz, etsia,
galdu dot boltsia,
galdu dot etxia,
galdu dot lotsia,
galdua dot.

Atxia-motxia,
oi Euskalerria
zorigaizto.

Atxia-motxia
ez emon lotsia,
bizia emon.

ABERE

Edangarriak edan ta mozkor,
erregarriak erre ta momo,
Zakilipu-Zakilimu,
Zakiliputz.

Kubalibre edo boiteilatu,
porro erre edo kirastu,
Zakilipu-Zakilimu,
Zakiliputz.

Ez enbidorik, danetik pasa,
ez ordagorik, danetik marra,
Zakilipu-Zakilimu,
Zakiliputz.

Kontu ez edan orri "koko",
utsik dauka-ta zeatz kaizkoa,
Zakilipu-Zakilimu,
Zakiliputz.

Idea goitar ta aberri-mintza
olakoekin ez arren pentsa,
Zakilipu-Zakilimu,
Zakiliputz.

Barreirri eizu bere grazira
t'abertzale "pop" izango zira,
Zakilipu, Zakilimu,
Zakiliputz.

ERMITA

El! El!
Deun Mikel!


Aralar zeatz ondatu guraz irensugea da emen,
mendi ta zelai estu garabiz izuaren izuaarren,
eguneroko bitima beroz sabela ei dau aseturen.
Jainko-semerik bere ortzetatik etsirik joan ez
el! El! [daiten,
Deun Mikel!

Zazpi burudun adar bikoizdun buru bakoitzean
[dago,
iñoiz baiño be indarrez bete, armatan arma-
[tuago,

Ez dogu iñor, gogor erasoz, ari burua austeko.
Erri-semeen odola-arren, auzia argiratzeko,
el! El!
Deun Mikel!

Aren aoen zazpi mingaiñek arrokeritan bi-
[rauka,
guzur-agintzak gert agirian goraka eta beeraka,
bere buztanaz kale guztia darabilku iraulika,
indarrak oro sutan amorr- zurrunbilloan bi-
El! El! [raka.
Deun Mikel!

Goi larretako jabe dalakoz, izariguztien argia
bekokietan, bularidanetan ezarri dau erantzia,
izarratua, izorratua, gizon beraren zoria,
zerua emen bere aintzaren omenez baida erai-
El! El! [kia.
Deun Mikel!



Zeuren zara ordutik ona historiaren lekuko,
 Euskalerrria marrokerian zurekin ez zan galduko.
 Anaien tukuz, auzia dogu t'eziniñ gaitzari uko,
 zeuren pisuaz auzi au garbi, zeu zaitugu epai-
 El! El! [maiko.
 Deun Mikel!

Teodosio zaldunak, ako tukuen setaz bakarrik
 guraso biak ezpata beraz itzi zituan josorik,
 irensugeak Euzkadi dena goitik beera iraulirik,
 zazpi buruko zazpi estar-zuloz gurako leuke
 El! El! [iruntzi.
 Deun Mikel!

Angeru guren armarik gabe, ezpatarik ez bai
 [dozu,
 arek eskaten trinkoarren, errespetorik ez dau-
 [tzu,
 Soma daiala buruko zeuren gurutz santuaren
 [zantzuz,
 zaindariatzen zeu zaitugula gure gaitzen sen-
 El! El! [dagailu.
 Deun Mikel!

Gure ikurriñak zeuren gurutzaz zuri-zuritan da-
 [gertzu;
 Kristoren gurutz- dizdirak buruz gureak begiz
 [fargitu,
 irensugeak eskata artean ez dagizala orapildu.
 Bakearentzatt maai berean gurutzak daukaz lau
 El! El! [buru.
 Deun Mikel!
 Mikel gurea
 Zaindu eizu
 Euskalerrria.

ARTALDE

Ardi galdua dager
Ebangelioan.
Tuntuna, ziñez tuntuna
Ebangelioko ardi galdua.
Eta alan bere,
—ardi galdua, galdu,
ba dau naiko pekatu—
ez dautso inortxok
adarrik jo
ardi galduari,
inortxok ez dautso
ulea itxusi...
Danok garelako
geutaz erruki.

KURTZEMENDI

Kurtzemendi, zeugan dago zure gaitzen osakaia,
zeure erratuen eta bidegalduen onbideratzea,
zeugan zure lezeak betetzeko lain lur eta arri,
zeugan azia eta soloa, mardul zindoak,
eta etxea jasoteko oiñarri sendoa.

Zeugan zure egarrien asetzeko ur gardena,
zeugan zure pekatuen parkamena,
zeure zikiñak garbitzeko ur barrena;
zeugan zidor guztien gurutzatzea,
goi-beeak eta bi egalak alkartzea.

Kurtzemendi, zeugan eskuen eskuartzea
eta besoen besarkatzea;
zeugan, zeure tontorreko argitan
begi guztiak arrigarritzeko indar,
zeugan mailla-bardinduz gora-beerak,
bide malkartsuak bardintzea.
Zeure besoetan maite-zori,
inortxok inortxori
kalte gabe,
zeugan bake.

ZUGAITZ

Zugaitz bat dago Euzkadin,
askatasun-irudi,
"Jainkoa ta Lagi Zarra"
erriko leen-asabek
osotu ikurdi.

"Legearen gaiñetik
ez beste Jainkorik
—esan euen ezbai baga—
Nor Jainkoaiña?"

Ta eztabaida sortu zan
zeruan legez lurrean,
agintearen oiñarriak
azter bearretan.

Ta mitoak mitoz janez
—baietz, ezetz—
eztabaidan dabil
dena geroztik:

Bai euskerari!
—ezetz, baietz—
Bai Euzkadiri!
—ezetz, baietz—

Bai Jainkoari!
—baietz, ezetz—
Bai gizonari!
—baietz, ezetz—
Jainko odolez delako
gorri-gorri.


Izkuntza nai da euskaldun:
"ez gal euskera, ez Euzkadi",
otoitza dabil fededun:
"ez erail gizona, Jainko irudi"
Jainkoa nun?

Jainkoagana itzuli!
Jainkoa kenduz gero
gaur ta emen,
nor da jainkotxo,
nor da guren?
Jauna gabe,
nor da jabe?

Zugaitz bat dago Euzkadin,
eztabaida dabil kaletik,
—ezetz, baietz—
otoitza barrutik,
"itzul zaitez",
askatasun-eguzkia
dator basotik,
aske, alai, gartsu, jator
—ez iñoren eskutik—
Askatasun, aske ator!
Ziñez eu maite augu,
ez beste iñor.

ARKAITZ (III)

Ta errigilleak errigintzan
ezetsi euen euskal arria,
bera da aukeratua izan
oiñarritzat.
Arrigarria benetan!



EDUR

Kantu berezi,
mezu barria dakar
edurraren altzotik datorren
ur gardenak.
Argiratuen mundu barria,
ames kutsagabeak.

Txastada baten saltari,
apar-bitsetan jostari,
ezpillu bare egin deneko
arpegiion serbitzari,
geure bekaña, ara ordeko,
opa dautsogu berari.

Ta edangarri osasuntsu
ta bustigarri egokitu
daneko, ugerra ez besterik
erakutsi dautsogu.
On egiñaren saria emon deugu,
iturri apa] ustetsu.

Ez yoagu entzun ire kantua,
ez errespetatu ire iñosentzia,
ez yoagu onar ire mezua,
ez yoagu jastatu ire freskura,
ez geure arpegiak
eure ditziran bardindu.

Apurtu egin yoagu eure ezpillua,
itzaldu eure gardena,
galdu egin yoagu eure altsoko bizia,
salatzen atorrelako
geure kontzientzia.

Oi edurraren altsotik atorren,
ur apal gardena,
nonbait geuk, dizonok, deitu gabe
etorri az gugana
egiten mesede.
Eta orrela, eder-galdu,
geure arrokeriaren ezpillu
az, uste gabe.

AURKIBIDEA

	or.
Sarrera	5
Zidor	8
Euri	9
Ur	11
Aize	13
Trikuarri	15
Arnas	16
Egazti	17
Laiño (I)	18
Gizaldi	19
Laiño (II)	22
Malkar	23
Odol	25
Arkaitz (I)	26
Aldapa	27
Sasi	30
Bide	31
Iturri	32
Ire magaletik	33
Ots	35
Tximist	36
Itz	37
Poz	38

Larre	40
Neke	41
Zaparrada	42
Arkaitz (II)	44
Lan	45
Gudu	47
Eguzki	48
Zenbat tarrapata	49
Tontorreraíño	51
Irrintzi	55
Zantzo	56
Zur	57
Izu	59
Lorraz	60
Joku	61
Abere	62
Ermita	63
Artalde	66
Kurtzemendi	67
Zugaitz	68
Arkaitz (III)	69
Edur	71

